

The image features an abstract graphic design on a white background. It consists of three overlapping circles of varying sizes, each composed of concentric layers of blue and light blue. The circles are arranged in a vertical line, with the largest one at the top, a medium one in the middle, and the largest one at the bottom. Two thin, light blue lines intersect at the top left and extend diagonally across the page, framing the circles.

**Euro Depot España, S.A.U.**  
Merkataritza-bermeen politika

**I ERANSKINA  
BRICO DEPOT ESPAÑAKO MERKATARITZA-BERMEA****I.- Sarrera.**

Dokumentu honetan zehaztuta daude Euro Depot España, SAU (aurrerantzean Brico Depot –España-)sozietateak eguneroko merkataritza-jardueran bezeroekiko dituen jarduketa printzipioak eta konpromisoak.

Euro Depot España S.A.U.k nazionalitate espainiarra du eta Espainian dauden Brico Depot establezimendu guztien titularra da. Sozietate horrek zuzenean ustiatzen eta kudeatzen ditu aipatutako establezimenduak. Hauek dira konpainiaren datuak:

**EURO DEPÔT ESPAÑA, S.A.U.**

IFK: A-62018064

Bartzelonako Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dago, 31.885. Liburukian, 208. Orrian, B-199.932 zenbakidun Orrialdean, 1. inskripzioan.

Egoitza soziala:

La Selva, 10 kalea – Inblau Eraikina A 1. solairua  
08820 – El Prat del Llobregat (Bartzelona).

Dokumentu honen xedea da Brico Depoteko merkataritza-eskaintzen baldintzak bezeroen eskura jartzea, eta ondorioz, konpromisoen inguruan aldizka sor litezkeen zalantzak argitzea.

Dena den, Brico Depot establezimenduetako eskaintzen inguruan edo dokumentu honen inguruan oraindik ere zalantzak izanez gero, bezeroek edo kontsumitzaileek idazki bat bidal dezakete Brico Depoteko egoitza sozialera.

Gehienez ere 10 egun balioduneko epean (ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegunak, Brico Depot establezimendu bat edo guztiak irekita egon arren) idazkia jaso denetik kontaktzen hasita, Brico Depot Españak idatziz erantzungo du eta kontsumitzaileak edo bezeroak idazkia helarazteko erabili duen bitarteko edo modu bera erabiliko du.

**II.- Brico Depoten merkataritza-politikaren printzipioak eta balioak.**

Brico Depot hurbiltasun, zintzotasun eta sinpletasun printzipioetan oinarritzen da, bai bezeroekiko bai hornitzaile, Administrazio edo eragile sozialekiko.

Gure helburua eta izateko arrazoia demokratizatzea da, hau da, etxea hobetzeko produktu sorta zabala (brikolajea, eraikuntza-materialak eta lorezaintza)jende guztiaren eskura jartzea eta ahalik eta kalitate-prezio erlazorik hoberena eskaintzea. O noso concepto, a nosa forma de actuar e de organizarnos responde sempre a eses principios; principios que se traducen en:

Gure jokatzeko eta antolatzeko modua printzipio hauetan oinarritzen da:

**Prezio merkeagoak.** Zerbitzurik onena eskaintzen dugu gama osoan, kantitate handia erosten dugulako eta, eraginkorragoak izateko, etengabe ari garelako gure prozesuak eta instalazioak hobetzen.

**%100 stockean.** Ez dugu eskaripean saltzen. Saiatzen gara gamako produktu guztiak beti eskuragarri izaten Brico Depot denda guztietan.

**Deskargak.** Aldizka produktu batzuen unitate-kopuru mugatua eskaintzen dugu prezio hobezinean. Unitate horiek Brico Depot establezimendu bakoitzerako argitaratzen dugun "Descargak" katalogoan daude.

**Kalitatea.** Prezio merkea izateak ez dakar produktuaren kalitatearen gutxitzea. Gure antolamenduari, prozesu logistikoei eta markei esker eta kantitate handia erosteko ahalmenari eta gastuak uneoro eta banaketa-kate osoan kontrolatzeko borondateari esker, gure produktuen prezioak jaitsi ditzakegu aldizka.

### **III.- Lege-esparrua.**

Brico Depot txikizkako merkataritzako enpresa da eta jendeari irekita dauden saltokien sarea du. Hori dela-eta, Espainiako Ordenamendu Juridikoaren menpe dago, eta zehazki, kontsumitzaile eta bezeroei dagokienez, urtarrilaren 15eko Txikizkako Merkataritza Antolatzeari buruzko 7/1996 Legearen eta azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren menpe. Aipatutako legegintzako dekretuak Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten du. Era berean, estatu nahiz autonomia mailan bat datorren legediaren menpe dago.

Dena den, aipatutako arauetan xedatutakoa betetzeaz gain, eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren 79. artikulua ezarritakoaren babesean, Brico Depotek legalki aurreikusitakoa hobetzen edo osatzen duten hainbat berme edo konpromiso eskaintzen dizkie bezeroei, dokumentu honetan zehazten diren baldintzetan.

Brico Depotek ez du atari elektronikoko edo web-orri bidezko salmentarik egiten eta ez du ez salmentarik ez beste inolako eragiketarik egiten merkataritza-establezimenduetatik kanpo (urrutiko salmenta, posta bidezko salmenta, etab.)

Brico Depotek ez du garraio, muntaketa eta/edo antzeko zerbitzurik eskaintzen. Gure establezimenduetan noizean behin edo beti egon daitekeen zerbitzu-emaile batekin kontratatuz gero zerbitzu horiek, kontsumitzaileak zuzenean aurkeztu beharko dio erreklamazioa zerbitzu-emaile horri; izan ere, erabateko independentzia juridikoa eta funtzionala dago zerbitzu-emaile horien eta Brico Depoten artean. Beraz, Brico Depotek ez du zerbitzu horien inguruan inolako erantzukizunik bere gain hartuko.

## **IV.- Merkataritza-bermeak.**

Gure bezeroei, legalki aurreikusitakoez gain, berme osagarri hauek eskaintzen dizkiegu:

### **1. Gure bezeroei, legalki aurreikusitakoez gain, berme osagarri hauek eskaintzen dizkiegu.**

Brico Depoten produktu bat erosten baduzu eta, ondoren, jendeari irekita dagoen beste saltoki –denda fisiko- batean merkeago aurkitzen baduzu, aldea itzuliko dizugu, baldin eta saltoki horren eta Brico Depoteko dendaren artean 20 kilometroko radioa badago.

Horretarako, produktua erosi zenuen establezimenduan aurkituko duzun formularioa bete beharko duzu 15 egun baliioduneko epean produktua erosi duzuetik kontaktzen hasita, eta agiri hauek erantsi beharko dituzu:

- a) Brico Depoten erosi zenuen produktuaren ticketaren edo fakturaren kopia.
- b) Gurea baino merkeagoa den prezio bat aurkitu duzula egiaztatzen duen agiria (produktua eta prezioa argi eta garbi ikusten den establezimenduaren argazkia edo liburuxka, ticketak, proformako faktura, etab.). Era berean, produktua non eta zein baldintzatan eskuratu duzun zehaztu beharko duzu.

Produktuak Brico Depoten erositakoaren marka, modelo eta formatu berekoa izan beharko du. Ezin izango dira inondik inora alderatu "packetan" dauden produktuak, baldin eta muntaketa-zerbitzuak eta bermen luzapenak prezioaren barnean badaude, eta beraz, produktuaren prezioa banan-banan adierazita ez badago.

Brico Depotek eskubidea du gutxieneko prezioa bermatzeko eskaera ez onartzeko egiaztatzen badu prezio merkeena izakinen likidazioaren, salgai-hondarren edo ohiz kanpoko bestelako salmenta baten ondoriozkoa dela, txikizkako merkataritzari buruzko legedian xedatutakoarekin bat etorriz.

Eskaera egin eta gehienez ere 30 egun naturaleko epean eta prezioaren aldea eta aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Brico Depotek prezioaren aldea itzuliko dizu zure erosketa ordaintzeko erabili zenuen ordainketa modu bera erabiliz.

Horrez gain, eta zure konfiantza eskertzeko, Brico Depotek bale bat oparituko dizu erositako produktuaren prezioaren ehuneko hamarrarekin (%10). Aipatutako balea nolnahi ere euro batekoa izango da gutxienez.

Bale horrekin Brico Depoteko zure establezimenduan salgai dagoen edozein produktu erosi ahal izango duzu sei (6) hilabeteko epean, balea jaso zenuenetik kontaktzen hasita.

Aipatutako politika ez da aplikatuko nazioarteko merkatuetan fabrikazioaren lehengaiak duen balioak Brico Depotek erosten dituen produktuen prezioetan guttiz edo zati batean

eragiten duenean. Adibidez, kobreakin fabrikatutako produktuak (kableak, hodiak, etab).

## **2. Zure erosketa aldatzea eta itzultzea. Atzera egiteko eskubidea.**

Egindako erosketarekin gustura ez bazaude edo erositako produktua Brico Depoteko beste edozein produkturengatik aldatu nahi baduzu, 15 egun natural dituzu dirua itzultzea eskatzeko edo ordaindutako dirua prezio bera duen edo garestiagoa den beste produktu batean aplikatzeko eskatzeko.

Horretarako, jatorrizko ticketa edo faktura aurkeztu beharko duzu eta eskuratutako produktua ondo -erosi aurretik zegoen bezala- entregatu beharko duzu. Produktua, gainera, jatorrizko bilgarrian aurkeztu beharko duzu, eta produktuaren jatorrizko gidaliburu, zorro, osagarri eta osagaiekin batera.

Ezin izango dira itzuli edo aldatu ondorengo produktuak:

- a) Higiene pertsonaleko produktuak edo dituzten ezaugarriak direla-eta aldatu ezin diren produktuak (produktu suntsikorrak edo soilik erabiltzearekin agortzen edo narriatzen diren produktuak): komuneko tapak, komuneko eskuilak, etab.
- b) Neurrira moztutako produktuak edo jada jatorrizko itxura ez duten produktuak.
- c) Ondo ez dauden produktuak, hau da, erabili izanaren zantzu nabarmenak dituzten eta jada jatorrizko itxura ez duten produktuak.
- d) Produktuak mugitzen diren parteak edo osagarri suntsikorrak (ordezko piezak baditu, horiek ondo egon behako dute. Eztanda-motorra duten produktuak ezin izango dira aldatu edo itzuli, baldin eta aipatutako motorra kendu eta erabili baldin bada, eta ondorioz, produktuaren itxura aldatu bada.
- e) Ezin izango dira aldatu edo itzuli instalatu diren produktuak (termoak, galdarak, berogailuak, eraikuntza-materialak, sorgailuak, etab.).
- f) Soltean saldutako produktuak.

Kontsumitzaileak atzera egiten duenean eta dirua bueltatzeko eskatzen duenean, produktua erosi zuenean erabilitako ordainketa modu bera erabiliz itzuliko zaio dirua.

Bezeroak, ordea, produktuaren zenbatekoa Brico Depoten beste produktu bat erosteko erabili nahi duenean, momentuan bertan erosi ahal izango du deskontu-ticket baten bidez, edo, bestela, aurrerago erabili ahal izango duen bale bat entregatuko zaio itzulitako produktuaren zenbatekoarekin.

Bale horren indarraldia gehienez ere sei (6) hilabetekoa izango da bezeroari entregatzen zaionetik kontatzen hasita.

Epe hori igaro bada eta bezeroak ez badu balea erabili, erosketa egin zuen Brico Depoteko establezimenduko zuzendariarekin jar daiteke harremanetan. Zuzendariak kasua aztertuko du eta irtenbide egokia ematen saiatuko da, betiere kontratuko fede onari jarraiki..

### **3. Descargak.**

Brico Depotek, noizean behin eta izakinak agortu arte, oso merke dauden produktuak eskaintzen ditu. Produktu horien eta unitate mugatuetako prezioen berri "Deskargak" katalogoan eta gure dendatan izango duzu.

Espanian guztira merkaturatutako unitate-kopurua, denda bakoitzera iritsiko den unitate-kopurua, gure establezimenduetan eskuragarri egongo diren eguna eta eskaintzaren indarraldia argitaratzen da.

Brico Depotek konpromisoa hartzen du bezeroaren eskura izango dituela iragarritako unitate guztiak, gure gainerako gaman gertatzen den bezala. Salgai jarritako unitate guztiak agortu ondoren edo eskaintzaren epea igaro ondoren, Brico Depot ez da behartuta egongo unitateak adierazitako prezioan saltzera, edo, agortuz gero, ez da behartuta egongo Brico Depot produktuen gama normalaren barruan egon daitezkeen kalitate bereko edo antzeko kalitateko produktuen beste unitate batzuk prezio berean entregatzera.

Dena den, Brico Depotekin zerikusirik ez duen edozein arrazoiengatik edo leku faltagatik dendan ezin badira iragarritako unitate guztiak gorde, eta ondorioz, dendara etortzen den egunean bezeroak ezin badu produktua eraman (betiere eskaintzaren indarraldiaren barruan eta unitateak agortu ez badira), itxarote-zerrenda batean eman dezake izena, eta produktua eduki bezain laster deituko diote.

Itxarote-zerrendan izen-ematea eskaera hurrenkeraren arabera egingo da unitate guztiak agortu arte. Hala ere, %10 eskatzaile gehiagok izena eman ahal izango dute. Eskatzaile horiek "erreserban" egongo dira itxarote-zerrendako bezeroen batek produktua nahi ez duenerako. Bezero bat erreserba-zerrendan dagoenean, jakinaraziko zaio. Bezeroek eskatu ahal izango dute zerrenda erakustea, baina Brico Depotek, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, ez du zerrenda horren kopiarik entregatuko.

Produktua iritsi dela jakinarazten zaienean, bezeroek 15 egun baliodun izango dituzte produktuaren bila joateko eta eramateko. Eramaten ez badute, produktua ez dutela nahi ulertuko da eta erreserba-zerrendan dagoen pertsonarengatik ordezkaturiko du Brico Depotek, betiere txanda errespetatuz.

### **4. Sustapen-kanpainak. Sustapen-baleak.**

Brico Depotek sustapeneko salmentak egin ahal izango ditu. Horretarako, deskontuak egin edo deskontu-baleak entregatu ditzake, edo komenigarritzat jotzen duen beste edozein merkataritza-abantaila erabil dezake.

Promozio horiek oinarri espezifikoaren arabera arautuko dira; Brico Depotek horien publizitate orokorra egin ahal izango du, edo bestela, bezero guztien eskura egongo dira Brico Depotek dituen dendatan.

Deskontu-baleei dagokienez eskaintzaren baldintza partikularretan iraugitze-epe espezifikorik adierazten ez bada, gehienez ere sei (6) hilabeteko indarraldia izango dute bezeroari entregatzen zaizkionetik kontatzen hasita. Behin epe hori igarota, baleak indarraldia galduko du eta ez da deskontua aplikatuko.

### **5. Erreklamazioak eta kexak.**

Oro har, eta Brico Depoten erositako produktuei buruzko edozein erreklamazio edo kontsulta egiteko, erosketak egin dituzun establezimenduko kutxa zentralera joan beharko duzu. Garrantzi handia ematen diogu hurbiltasunari, eta horregatik, erosketak egin dituzun establezimenduetan kudeatzen ditugu erreklamazio guztiak.

Gure establezimendu guztietan erreklamazio-orriak eta laguntzeko prest dauden langileak daude.

Horrez gain, helbide elektronikoa bat dugu bezeroek edo erabiltzaileek gure establezimenduetara haien erreklamazioak eta iradokizunak bideratzeko. Helbide elektronikoa dendan, web-orrian eta gure katalogoan aurki daiteke.

Ahalik eta eperik laburrenean erantzuten saiatuko gara, eta nolahi ere, hilabeteko (1) epean erreklamazioa edo kontsulta jasotzen dugunetik kontatzen hasita. Erreklamazioa egin ondoren, dendak emandako erreferentzia-zenbaki bat jasoko duzu.

Dena den, edozein arrazoiengatik ez baduzu erantzunik jaso epe horretan, edo edozein arrazoiengatik ez bazaude tratua erkin edo irtenbidearekin gustura, idazki bat bidali dezakezu gure bulego nagusietara.

### **5. Laguntza Teknikoko Zerbitzuak (LTZ).**

Brico Depotek zerbitzu tekniko homologatuen sare zabala du produktuak konpontzeko, bai zuzenean, bai produktuen hornitzaile eta fabrikatzaileekin sinatutako hitzarmenen bidez.

Edozein gorabehera konpontzeko laguntza teknikoa behar baduzu, jo ezazu Brico Depot dendetara; bertan, Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren (LTZ) datuak emango dizkizute.



Aipatutako zerbitzua erabiltzen baduzu, bai Brico Depoti bai LTZri zuzenean jakinarazitako gorabeherari eta LTZk egindako ikuskapenaren edo lanaren emaitzari buruzko txosten edo akta idatzia eskatzea gomendatzen dizugu.

Brico Depotek adierazitako edo iradokitako LTZ batek egindako lanaren inguruan zalantzarik izanez gero, bereziki Brico Depotek saldutako produktuekin ados ez badaude eta berme legalak erabili nahi badituzu, Brico Depotera jo dezakezu zuzenean. Brico Depotek bezeroek azaldutako edozein arazo kudeatuko du, lege-betebeharrei aurre eginez.

### **V.- Indarraldia eta aldaketa.**

Merkataritza-bermeen politika hau indarrean egongo da espresuki edo tazituki indargabetzen ez den bitartean, eta EURO DEPOT ESPAÑA SAU sozietateak edozein unetan berrikusi ahal izango du alde zuzenetik jakinarazi gabe.

*Kontraesanak edo ezberdintasunak baldin badaude textu hau eta gaztelainazko bertsioaren artean, gaztelainazko bertsioa nagusituko da*

A large, stylized watermark of the Brico Depot logo is centered on the page. The word 'BRICO' is in a light pink color and 'DEPÔT' is in a light grey color. The letters are bold and have a slightly irregular, hand-drawn appearance.